# a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

## > Gelako kartelak

### - Kartelak

**Helburuak**

– Umeek, irudien bidez, egunero erabili ohi diren hainbat esaldi ikastea, eta, beharren arabera erabiltzea.

**Prozedura**

– Kartelak gelako hormetan itsatsiak egoteko dira. Hasierako egunetan azalduko zaie umeei zer esan nahi duen kartel bakoitzak eta horiek erabiltzera bultzatu.

**Oharra**

– Zortzi kartel daude:

1. Komunera joan nahi dutenean:

**Komunera joan naiteke?**




2. Zerbait ulertu ez dutenean:

**Ez dut ulertu**



# a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

## > Gelako kartelak

### - Kartelak

3. Hitz bat euskaraz nola esan jakin nahi dutenean:

**Nola esaten da ............... euskaraz?**



4. Zer moduz dauden galdetzen dietenean:




5. Zerbait eskuratu nahi dutenean:

**Hartu dezaket ...............?**



6. Azalpen bat errepikatzea nahi dutenean:

**Errepikatu, mesedez.**



# a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

## > Gelako kartelak

### - Kartelak

7. Azalpenak astiroago egiteko eskatu nahi dutenean:

**Poliki, mesedez.**



8. Hitz bat euskaraz nola idatzi jakin nahi dutenean:

**Nola idazten da .............. euskaraz?**

